



DONOSTIAK LARUNBATEAN ITZALIKO DITU ARGIAK "PLANETAREN ORDUAREKIN"

- **Aurten, eraikin eta leku enblematikoei "Besarkada" eskultura gehitu zaie itzalaldiarekin batera, Covideko biktimak omentzen dituen.**

Larunbatean, martxoak 27, Donostiak berriro itzaliko du bere eraikin eta monumentu nagusien argiztapen apaingarria, "Planetaren Ordua" mundu mailako ekimenarekin bat eginez. Ekimen horren helburua energia-kontsumoa murrizteko eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzeko beharraz kontzientziaztea da.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, "larunbat honetan, ordubetez, mundu osoko milioika pertsonak keinu sinboliko bat egingo dugu itzalaldiaren bidez, baina klima-aldaketa bezalako fenomeno gero eta ukaezinagoaren aurrean beharrezkoa den kontzientziazioarenugarra piztu nahian, hainbat belaunaldiren etorkizuna baldintzatuko duena. Ondorio batzuk aintzea guztion erantzukizuna da".

Prentsa oharra

Nota de prensa

Horrela, 20: 30etik 21: 30era, udaletxeko eraikinaren argiztapena itzaliko da: Goikoa jauregia, Urgull mendia, Santa Klara uhartea, Artzain Onaren Katedrala, Miramar jauregia, Kontxako badia, Kursaal, San Telmo museoa, Santa Maria basilika, San Bizente eliza, San Inazio eliza... Aurten, gainera, Ramon Labayen plazan dagoen Besarkada eskulturak ere bat egingo du ekimenarekin.

"Ekintza sinbolikoa bada ere, enpresak eta herritarrak itzalaldiarekin bat egitera animatu nahi ditut", adierazi du Garmendiak. "Argiak ordubetez itzaltzea bezain gauza erraza da aldaketa klimatikoa iraultzeko beharra agerian uzteko. Denok egin dezakegu eta lagundu behar diogu planetari".

"Planetaren Ordua" WWF (World Wildlife Found) erakundearen ekimena da, eta 2007an hasi zuen bere ibilbidea. "Donostiak ekimen honetan parte hartu du sortu zenetik, eta urtero atxikimendu berriak batzen ditu. Erakundearen helburua da mila milioi pertsona baino gehiago inplikatzeko eta mundu osoko 172 herrialdetako 7.000 hiri mugiaraztea, klima-aldaketaren aurkako ekintzari eta energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak eta mugikortasun jasangarria sustatuko duten proiektuak eta programak abian jartzeari laguntza globala emateko.

